



LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EGINDAKO JARDUKETAK

2020

1. IKUSKARITZAKO JARDUKETA-ARLOAK, EAEKO ESKUMENEKOAK

1.1. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

1.2. LAN-HARREMANAK

2. IKUSKARITZA-JARDUKETAK EAEn HARTZEN DITUEN BESTE ARLO BATZUK

2.1. GIZARTE-SEGURANTZA

2.2. ENPLEGUA ETA ATZERRITARRAK

Hitzaurrea

Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza arautzen duen uztailaren 21eko 23/2015 Legeak ezartzen duenez (uztailaren 22ko BOE), Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrek ikuskatze-jarduketak antolatuko dituzte, Lan Ikuskaritzako sistemaren ikuskera integralaren printzipioa betez. Horrenbestez, jardute-printzipio horri jarraitu zaio memoria honetan. Memoria, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen diren arloen inguruan egituratu da, egoki aurkezteko moduan antolatzeko. Dena den, gure funtzionarioek Estatuaren eskumen-arloetako jarduketei buruzko informazioa ere sartu da. Jardun horiek, hain zuzen, Estatuko Lan Ikuskatzaitzarekin dagoen lankidetzaren barruan egin dira.

Alde batera utzi gabe Lan Ikuskatzaitzak ofizioz sor dezakeen jarduera, EAEko jarduketek kontuan hartu behar dute ezen, autonomia-erkidegoko lurraldean, jarduketa asko eskatzen direla, batez ere salaketan ondorioz. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate sozioekonomikoaren ezaugarri tradizionalak dira: sindikatze-maila altua izatea, herritarrak kontzientziatuta egotea dituzten eskubide eta betebeharez, eta administrazio publikoek herritarrenganako azaltzen duten hurbiltasuna. Ondorioz, nahitaez, eragiten du egiaztatze- eta kontrolatze-jarduketak egin behar izaten dira.

1.1. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA 2020

Lan-arriskuen prebentzioa da EAEko Lan Ikuskatzailetzaren jarduketaren zutabe nagusietako bat da, bai jokoan dauden ondasunen eta eskubideen garrantziagatik, bai prebentzioa garrantzitsua delako kalitatezko enplegua lortzeko.

I

Jarduketa horiek lehentasuna dute Lan Ikuskatzailetzako eginkizunen eta betebeharren barruan. Bi motatako jarduketak bereizten dira: batetik, langile eta sindikatuen salaketak direla-eta, jarduketak egiteko eskatzen da, eta, bestetik, sektore jakin batzuetan kontrol-kanpaina zehatzak egiteko jarduketa planifikatuak daude.

Emaizak	2020
JARDUKETAK	8.008
ARAU-HAUSTEAK	306
GIZARTE SEGURANTZAKO PRESTAZIOEN ERREKARGU- PROPOSAMENAK, SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN GAINEKO ARAUDIA URRATZEAGATIK	148
ERREKERIMENDUAK	1.442
ARAU-HAUSTEEN ZENBATEKOA	1.314.323
LANAK ETETEA, SEGURTASUNERAKO ETA OSASUNERAKO ARRISKU LARRI ETA BEREHALAKOAGATIK	0
BISITAK	946
ARAU-HAUSTEEK ERAGINDAKO LANGILEAK	1.383
IKERTUTAKO LAN-ISTRIPUAK	287
IKERTUTAKO ISTRIPUETAN EGIAZTATUTAKO ARAU-HAUSTEEN KOPURUA	146

Arlo honetako datuek azaltzen dutenez, 2020an, 8.008 jarduketa egin ziren laneko segurtasun- eta osasun-arloan. Jarduketa horietan, 306 arau-hauste antzeman ziren; 148 proposamen egin ziren Gizarte Segurantzari errenergua egiteko, eta 1.442 errekerimendu egin ziren gabeziak zuzentzeko, hala -arriskuak prebenitzeko kudeaketa-lanetan, nola laneko segurtasun-baldintzetan.


Arau-hausteak, guztira, 1.314.323 eurokoak izan ziren.

Zehapenak, berriz, batez beste: 4.295 eurokoak.

LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ARLOAN 2020AN IKERTUTAKO GAIK



LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ARLOAN 2020AN ZAHATUTAKO GAIK




Ondorengo zerrendan, adierazten da zein diren laneko segurtasun- eta osasun-arloan 2020an egindako jarduketan xehetasunak, zer arau-hauste hauteman zen, eta zenbat errekerimendu egin ziren zuzentzeko.

XEHETASUNAK	JARDUKETAK	ARAU-HAUSTEAK	ERREKERIMENDUAK
Lan-istripuak, beste klabe batzuetan sartu ezin diren arrazoiengatik, eta lan-istripuak in itinere	6	0	0
Ikerketa-txostenak, lan-istripu eta lanbide-gaixotasunei buruzkoak	376	0	13
Jakinarazpenak, lan-istripu eta lanbide-gaixotasunei buruzkoak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 11.2 eta 12.3 art.)	40	1	24
Lantokietako segurtasun-baldintzak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 11.4, 12.16 eta 17, 13.10)	1.486	25	171
Lantokien higiene-baldintzak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 11.1 eta 4; 12.16 eta 17; 13.10 art.)	905	6	50
Eskailera, plataforma eta irekierak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.16b eta f art.)	74	12	37
Komunak, aldagelak eta bestelako zerbitzuak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 11.4 y 12.16h art.)	64	1	30
Arrisku elektrikoak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 11.4; 12.16, 13.10 art.)	22	1	8
Sute eta leherketak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 11.4; 12.16, 13.10 art.)	16	1	3
Makinak eta laneko ekipoak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 11.5; 12.16, 13.10 art.)	273	80	120
Goratzte-lanak eta garraioa (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.16 art.)	7	0	3
Agenteekiko esposizio-mailak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.9, 13.16 art.)	642	1	91
Babes pertsonaleko baliabideak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.16f art.)	513	17	120
Larrialdi- eta ebakuazio-planak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.10 art.)	29	1	8
Lantokiak seinalizatzea (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 11.4, 12.16b eta 13.10 art.)	38	0	21
Arrisku-ebaluazioa (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.1b art.)	568	31	139
Prebentzio-jarduera planifikatzea (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.6 art.)	338	12	97
Jarritako langileak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.12, 15a art.)	28	1	1
Prebentzio-zerbitzu propioak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.15a art.)	59	1	1
Enpresaz kanpoko prebentzio-zerbitzuak (12.15a, 21 eta 22; 13.11 eta 12 art.)	267	9	7
kanpo-auditoretza egitea prebentzio-zerbitzu propioari (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.20 art.)	16	0	0
Langileak prestatzea eta informatzea (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.8 eta 13.10 art.)	657	40	185
Osasuna zaintzea (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.2 eta 13.5 art.)	533	7	85

Betebehar dokumentalak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 11.5 eta 12.4 art.)	77	2	10
Langile-ordezkarrien eskubideak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.11, 12 eta 19 art.)	68	5	24
Eraikuntzako azterketa/oinarrizko azterketa (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.24.b art.)	13	0	0
Osasun- eta segurtasun-planak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.23 art.)	119	8	17
ABLEetako langileekiko betebeharrak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.18 art.)	2	0	0
Irekitzen dela jakinaraztea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 11.3 eta 12.25 art.)	32	4	3
16 eta 18 urte bitarteko adingabeak babestea	18	0	0
Amatasuna eta edoskitzea babestea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 13.1 art.)	6	0	2
Langileak lanpostu bateraezinetara atxikitzea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.7 eta 13.4 art.)	33	3	8
Ez gelditzea edo etetea. Langileei gelditzea eragozte (Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 13.3 eta 9 art.)	0	0	0
Lan toxikoei, nekagarriari eta arriskutsuei buruzko txostena	2	0	0
Enpresaburuak lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak ikertzea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.3 art.)	41	4	0
Enpresa-jarduerak koordinatzea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.13, 14 eta 24, 13.7 eta 8.a art.)	118	16	24
Ikuskaritzan edo prebentzioa prestatzen espezializatutako entitateak (Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.21, 25 eta 26; 13.11, 12 eta 13 art.)	1	0	0
Prebentzioaren kudeaketa integrala	86	8	15
Eraikuntza-lanak azpikontratatzea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 11.6 eta 7; 12.27, 28 eta 29; 13.15, 16 eta 17 art.)	88	5	11
Azpikontratazio-mailak gainditzea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.27.c eta 28.b; 13.15.b eta 16.a art.)	67	1	4
Erantzukizuna saihesteko ituna (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 13.14 art.)	0	0	0
Prebentzioa integratzea. Prebentzio-plana (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.1.a art.)	12	1	0
Prebentzio-baliabideak izatea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 12.15.b eta 13.8.b art.)	55	1	10
Arrisku psikosozialak	160	1	77
Arrisku ergonomikoak	49	0	22
Prebentzio-zerbitzuaren jarduketa, zerbitzu-agindutik eratorria, lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak barne	0	0	0
Enpresa-jarduerak koordinatzea (enpresaria ez da lantokiaren titularra)	4	0	1
16 urtetik beherakoak babestea	0	0	0

JARDUKETA ETA ARAU-HAUSTE NAGUSIAK



SEKTOREKA BANATUTA

Sektorea	EJSN	Jarduketak	Arau-hausteak	Errekerimenduak	Geldiarazita
LEHEN SEKTOREA	01-09	148	7	26	0
INDUSTRIA	10-39	1.598	115	348	0
ERAIKUNTZA	41-43	3.127	82	344	0
MERKATARITZA	45-47	368	27	93	0
GARRAIOA	49-53	343	18	44	0
ZERBITZUAK	55-96	2.411	57	586	0

1.2. LAN-HARREMANAK 2020

Arlo honetan, helburu nagusia da kalitatezko enplegua lortzea, bat datorrena lan-arloko indarreko legediarekin. Lan-arloan, hain zuzen, negoziazioaren bidez sortzen dira enpresaren eta langileen eskubideak eta betebeharrak, eta lan-kontratuan islatzen; beraz, egiaztatu behar da ea lan-kontratu horiek betetzen dituzten legezko zein hitzarmenezko arauak. Laneko Ikuskaritzaren ardura da enpresek legezko arauak edo hitzarmeneko oinarriak betetzen dituzten ikuskatu edo egiaztatzea.

Laneko segurtasun- eta osasun-arloan bezala, lan-harremanekin lotuta egiten diren jarduketek ere bi abiapuntu dituzte. Batetik, arlo horretan lan-baldintzei eta eskubideei buruz aurkezten diren salaketak eta, bestetik, programatutako planifikazio-jarduketan bidez egiten direnak, dela sektore jakin batzuk kontrolatzeko, edo, irregulartasunak egon daitezkeela adierazten duten zantzuak daudenean, egiaztatzeko ea betetzen den langileen lan-eskubide batzuei buruzko araudia.

Eremu horretan, nabarmendu behar dira jurisdikzio-organismoek eta lan-agintaritzek eskatuta egiten dituzten jarduketak, bai eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren laguntza teknikoa jasotzen duten beste entitate eta organismo batzuek eskatuta egiten direnak ere, ikuskaritza-sistemaren araudian xedatutakoarekin bat.

Emaizak	2020
JARDUKETAK	8.684
ARAU-HAUSTEAK	325
ERREKERIMENDUAK	2.393
BERRIKUSITAKO LAN-KONTRATUAK	9.667
ARAU-HAUSTEEN ZENBATEKOA	783.926€
LANEKO IKUSKARITZAK ESKATUTA ERALDATUTAKO LAN-KONTRATUAK	3.047
ARAU-HAUSTEEK ERAGINDAKO LANGILEAK	6.294
BITARTEKARITZA ETA KONTSULTAK	177

Lan-harremanen arloan, 8.684 jarduketa egin dira guztira, eta 325 arau-hauste antzeman.

Era berean, 2.393 ohartarazpen edo eskaera egin dira antzemandako irregulartasunak zuzentzeko.


Kontratazio-arloan, 9.667 lan-kontratu berrikusi dira guztira, egiaztatzeko egokitzen diren indarrean den legerira. Zehazki, egiaztatu nahi izan da ea betetzen duten aldi baterako kontratazioari eta kontratazio partzialari buruzko araudia; batik bat, arlo horietako kanpainak garatuta.


2017an, jarduera intentsibo bat hasi zen kontrolatzeko ea iruzurrik egiten zen aldi baterako kontratazioan eta kontratazio partzialean; hurrengo ekitaldian, berriz, jarduera horrekin jarraituko da, eta ahalik eta gehien areagotuko dira ikuskatze-jarduerak.

Kontratazio-arloan 2020an egindako jarduketa intentsibo horren emaitza modura, aldi baterako 3.047 kontratu bilakatu dira mugagabe Lan Ikuskaritzaren errekerimenduz.

Arau-haustekak, guztira, 783.926 euro izan dira.

Zehapenak, batez beste: 2.412,08 euro izan dira.






Era berean, xehetasunak azalduko ditugu Lan Ikuskaritzak arlo horretan egindako jarduketak, antzemandako arau-hauste eta gauzatutako errekerimendu guztiei buruz.

XEHETASUNAK	ARAU-		
	JARDUKETAK	HAUSTEAK	ERREKERIMENDUAK
Obligazio formalak eta dokumentalak (Lan-arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 6. art.)	42	3	25
Lan-kontratuaren forma (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.1 art.)	8	1	1
16 - 18 urteko adingabeen lana	0	0	0
Sexuan oinarritutako diskriminazioa (4) (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 eta 8.12 art.)	34	2	4
Lanean diskriminatzea, salbu sexuagatik (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 eta 8.12 art.)	13	2	1
Intimitaterako eta duintasunerako langileek duten eskubidea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 eta 8.11 art.)	101	8	14
Sexu-jazarpena (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 eta 8.13 art.)	3	0	0
Sexu-jazarpenari buruzko protokoloa (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 art.)	0	0	0
Soldatak, soldaten hartze-agiriak eta kitapenak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.3, 7.4, 7.10 eta 8.1 art.)	483	16	84
Lanbide-sailkapena	134	0	0
Pizgarriak eta lanpostu-balorazioa	1	0	0
Laneko denbora (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.5 art.)	573	113	191
COVID-19aren ziozko baimen ordaindu berreskuragarriak.	15	0	0
Aparteko orduak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.5 art.)	52	15	11
Funtsezko lan-baldintzak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.6 art.)	162	1	3

Lekualdatzeak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.14 art.)	0	0	0
Langileak lagatzea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.2 art.)	42	16	9
Aldi baterako laneko enpresak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 18. art.)	3	1	0
Enpresa erabiltzaileak (Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 19. art.)	6	3	3
Lan-kontratuei buruzko araudia urratzea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.2 art.)	1.433	70	1.781
Lan-baldintza kaskarragoak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 art.)	214	15	22
Hitzarmen kolektiboak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 eta 8.10 art.)	107	11	48
Langileen beste eskubide batzuk (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 art.)	396	13	25
Pentsio-planak eta -funtsak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.15 art.)	0	0	0
Kontratua etetea eta lanaldia murriztea	4.263	0	17
Kaleratze kolektiboa	60	0	1
Ez agertzea Langileen Estatutuko 47. artikuluko prozeduran (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.3 art.)	9	0	0
Ez agertzea Langileen Estatutuko 51. artikuluko prozeduran (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.3 art.)	2	1	0
Lantokia ixtea edo jarduera etetea eta ez irekitzea berriro (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.3 eta 8.9 art.)	0	0	0
Langile- eta sindikatu-ordezkarien eskubideak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.7, 7.8, 7.9 eta 8.6 art.)	236	23	91
Nazioz haraindik prestazioa dela-eta lekuz aldatutako langileak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 10. art.)	11	3	2
Biltzeko eskubidea (Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 eta 8.5 art.)	2	0	1
Hauteskunde-prozesuak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.7 art.)	0	0	0
Greba-eskubidea (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.10 eta 8.10 art.)	42	8	1
Kooperatibak eta lan-sozietateak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 38. art.)	6	0	0
Gatazka kolektiboetako/grebetako bitartekaritza	1	0	0
Lan-arloko jurisdikzioko txostenak eskatzea	41	0	0
Eraikuntza-lanak azpikontratatzea: langile mugagabeen proportzioa (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.16 art.)	56	0	3
Berdintasun-planak eta Berdintasun Legeak ezarritako beste betebeharrak batzuk (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.13 eta 8.17 art.)	106	0	55
Sexuagatiko diskriminazioan oinarritutako jazarpena (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.13 bis art.)	2	0	0
Diskriminazioan oinarritutako jazarpena, salbu sexuagatik denean (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 8.13 bis art.)	1	0	0
Familia- eta lan-bizitza kontziliatzeko eskubideak (Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuaren 7.5 art.)	7	0	0
Negoiazio kolektiboan diskriminatzea	0	0	0
Kontrolatzea ea hitzarmen kolektiboak legezkoak diren	0	0	0
Adingabeen lana - 16 urtetik beherakoak	17	0	0



Nabarmentzekoa da, lan-arloko ikuskapen-jarduketa gehienak **LANGILEAK LAGATZEAREKIN, LAN-DENBORAREKIN ETA KONTRATAZIOEN IRUZURRAREKIN** lotuta egon direla.

LAN-DENBORA: lanaldia baino denbora luzeagoan lan egin da; ez da bete ohiko edo legezko gehieneko lanaldia. Legez ezarritako 80tik gorako aparteko orduak egiten dira, eta ordutegi desegokiak gehienetan.

Gai honetan, nabarmentzekoa da 2019. urtean araudian aldaketa garrantzitsu bat egon zela: 8/2019 Errege Lege Dekretuak enpresa guztiei eskatzen die, beren jarduerasektorea edozein izanda ere, lanaldia erregistratzea, Langileen Legezko Ordezkaritzarekin (LLG) adostutako bitarteko baten bidez. Bitarteko hori fidagarria izan behar da, eta ez du aldaketak sartzeko aukerarik emango.

Laneko Ikuskatzaitzak, arau hau indarrean sartu zenetik, agiri hori aurkeztu beharra sartu du lanaldia betetzen dela ikuskatzeko egiten dituen jardueretan. Agiri hori frogabide aparta da egiaztatzeko ea arau-hauste materialik egon ote den lanaldien, ordutegien, gaueko atsedendaldien eta aparteko orduen arloan.

LANGILEAK LAGATZEA. Gai honi lotutako ikuskapen-jarduketan helburua da kontrolatzea enpresek betetzen dituztela Langileen Estatutuaren 43. artikulua eta hura garatzeko araudia, bai eta interpretazio-jurisprudentzia zorrotza ere. Laneko Ikuskatzaileak antzeman du «enpresen jardueran» (kontzeptu hori oso garatuta dago jurisprudentzian) sartzen diren obren edo zerbitzuen azpikontraten itxurarekin ezkututzen direla langileen lagatzeak, araudiak langileei ematen dizkien eskubideei kalte eginez eta lan-prekarietatean sakonduz.

IRUZURRAREN AURKAKO JARDUKETAK ALDI BATERAKO ETA LANALDI PARTZIALEKO KONTRATAZIOETAN

Aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratazioetan gertatzen diren iruzurrak antzemateko ikuskapen-jarduketa Laneko Ikuskatzailea sortu zenetik egiten da, eta duela hamarkada batzuk oso garrantzitsua da; zehazki, Langileen Estatutuaren lehen testua 80ko hamarkadan onartu zenetik egiten da mota horretako jarduketa asko, testuan lanaldi partzialeko kontratazio-mota batzuk sartu zirelako (15. artikulua) baina ondo zehaztuta noiz egin behar ziren eta kontuan hartuta ordenamendu juridikoak kontratazio mugagabeei ematen diela lehentasuna.

2018. urtetik aurrera, Laneko Ikuskatzailearen sisteman adimen artifiziala hasi zen aplikatzen, HLF tresnaren bidez. Izan ere, tresna hori aplikazio informazio bat da, datuak analizatu eta gurutzatzen dituena (big data) aldeztatik arau jakin batzuen bidez zehaztu diren iruzur-enpresa ereduak detektatzeko. HLF tresna urte batzuk lehenagotik erabiltzen zen gizarte-segurantzari lotutako iruzurrak detektatzeko, baina 2018. urtean aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratazioei lotutako iruzurrak aurkitzeko hasi zen erabiltzen: kontratazioetako iruzurren aurka egiteko lehen talka-plana abian jarri zenean.

Talka-plan horien bidez, informazio-gutunak bidaltzen zaizkie HLF tresnak lan-kontratu batean edo batzuetan iruzurra dutela antzeman duen enpresei, eta epe jakin bat ematen zaie kontratu irregularrak borondatez mugagabe bilaka ditzaten.

Geroago, HLFk berak detektatzen du kontratu horietako zein aldatu dituzten enpresek beren borondatez, eta zein ez; beraz, ikuskapen-jarduketari ekiten zaio aldaketarik egin ez duten enpresa guztietan. Une horretan, Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaile batek gertakarien ikerketa zehatza egingo du eta erabakiko du enpresak kontratazioan iruzur egin duen ala ez. Lehen kasu hori gertatu bada, eta enpresak kontratuak aldatzeari uko egiten jarraitzen badu, ARAU-HAUSTE AKTA egingo da.

2017 eta 2020 urteen artean bi kanpaina egin ziren: aldi baterako kontratazioetako iruzurrari buruzkoa eta lanaldi partzialeko kontratazioetako iruzurrari buruzkoa. Bada, honako hauek dira bi kanpaina horien esparruan egindako kontratazio-arloko ikuskapen-jarduketaren emaitzak:

2017. urtea. Urte horretan ez zen HLF tresna erabili kanpaina diseinatzean.

- Laneko Ikuskatzaitzak 15.105 kontratu berrikusi zituen.
- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak 1.979 kontratatu aldatu zituen: % 29,31 emakumeenak % 70,69 gizonenak

2018. urtea. HLF kanpainetan erabili zen lehen urtea.

- Laneko Ikuskatzaitzak 17.991 kontratu berrikusi zituen.
- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak 7.860 kontratatu aldatu zituen: % 53,14 emakumeenak % 46,86 gizonenak

2019. urtea.

- Laneko Ikuskatzaitzak 21.396 kontratu berrikusi zituen.
- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak 6.517 kontratatu aldatu zituen: % 47,15 emakumeenak % 52,85 gizonenak

2020. urtea.

- Laneko Ikuskatzaitzak 9.668 kontratu berrikusi zituen.
- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak 3.047 kontratatu aldatu zituen: % 58,65 emakumeenak % 41,35 gizonenak

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO GENERO-BERDINTASUNAREN arloko jarduketak:

2017ko ekitaldian, Ikuskatzaitzak lehen aldiz abiarazi zuen berdintasun-planen existentzia egiaztatzeko kanpaina, Gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa betez. Kasu honetan, 250 langile baino gehiagoko enpresetan egin ziren ikuskapen-jarduketak; izan ere, enpresa horiek baino ez daude behartuta.

2018. urtean, buru-belarri jarraitu zuten kanpaina horrekin. Hala, 250 langiletik gorako enpresen % 75 ikertu zituen Ikuskatzaitzak.

2019an zehar, 250 langiletik gorako gainerako enpresak sartu zituzten berdintasun-planen ikuskapenetan.

Aurreikuspenen arabera, 2020an berriz ere egingo zen kanpaina, 2017an eta 2018an ikuskatu ziren enpresetatik hasita, eta, irregulartasunak hauteman zituztenez berdintasun-neurrietan edo -planetan, zuzenketa-eskariak edo arau-hausteen aktak egin ziren. 2020rako aurreikusitako berrikuspen horren helburu nagusia zen ikustea ea enpresa horiek bete ote zuten Laneko Ikuskatzailetzak eskatutakoa.

Ikuskapen-jarduera horiek 2020ko urtarrilean eta otsailean hasi ziren, baina COVID-19aren osasun-pandemiak eragindako alarma-egoeraren ondorioz, 2021era arte eten ziren.

2019. urtean beste berrikuntza garrantzitsu bat ere egon zen, nabarmendu beharrekoa: 6/2019 Errege Lege Dekretua onartu zen martxoaren 6an, eta martxoaren 8an argitaratu BOEn, eta bazekarren garrantzizko arau bat, berdintasun-planak egiteko betebeharra 50 langiletik gorako enpresei zabaldu ziena, behin-behineko araubide honen arabera:

- 150 langiletik gorako enpresek berdintasun-plana eduki behar dute, 2020ko martxoaren 8tik aurrera.
- 100 langiletik gorako enpresek berdintasun-plana eduki behar dute, 2021eko martxoaren 8tik aurrera.
- 50 langiletik gorako enpresek berdintasun-plana eduki behar dute, 2022ko martxoaren 8tik aurrera.

Gainera, errege lege-dekretu horrek ordainsarien gardentasunari buruzko printzipio garrantzitsua sartu zuen, soldata-arrakala murrizte aldera, soldaten erregistroaren edo ordainsarien erregistroaren bidez. Printzipio horrek, dena den, garapen-araudia behar zuen, enpresetan eraginkor ezarriko bazen.

Ondorioz, arauz ezarritako betebeharrak guztiak kontuan hartuta, Laneko Ikuskatzailetzak 2020an planifikatu zuen ikuskapenak egingo zizkiela 100 langiletik gorako enpresei, 2020ko martxotik aurrera, haien berdintasun-plana egiaztatzeko. COVIDaren ondoriozko pandemiak, hala ere, kanpaina hori galarazi zuen eta, beraz, 2021era atzeratu zen.

Hurrengo ekitaldietan jarduketa horiek areagotzeko aurreikuspenari eusten zaio.

AIPAMEN BEREZIA COVID 19AK ERAGINDAKO ALARMA-EGOERAN EGIN DIREN IKUSKAPEN-JARDUKETEI.

COVID 19AREN ERAGINPEAN EGOTEKO ARRISKUAGATIKO IKUSKAPEN-JARDUKETAK

Pandemia 2020an hasi zenean eta alarma-egoera deklaratu zenean, Laneko Ikuskatzaitzak bere ohiko jarduna eten behar izan zuen jarduketaren gizarte-eskaerari soilik erantzuteko: batetik, langileak lantokietan Covid 19az kutsatzeko arriskutik babesteko eta, bestetik, pandemia eteteko neurri murriztaileen ondorioz masiboki hartu ziren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen berri emateko.

Kanpaina berriak diseinatu ziren arlo horretako ikuskapen-jarduketak islatu eta laburtzeko, eta honako emaitza hauek lortu ziren:

NH0050: KORONABIRUSAREKIKO ESPOSIZIO-ARRISKUAREN GAINEKO KANPAINA.

Hemen sartzen dira langileek eta sindikatuek enpresa-sektore guztietan egin dituzten salaketa guztiak, uste izan dutenean enpresak ez duela betetzen lantokietan Covid 19aren aurrean babesteari buruzko araudia.

Ikuskapen-jarduketak 647, zehapen-espedienteak 8 eta errekerimenduak 170

2020ko uztailaren amaieran Laneko Ikuskatzaitzaren eskumenak gaitu ondoren, bi kanpaina bereizi dira:

NH0051 Covid 19a egotea langileentzat laneko arrisku biologikoa ez denean

Ikuskapen-jarduketak 15, zehapen-espedienteak 0 eta errekerimenduak 4

NH0052 Covid 19a egotea laneko arrisku biologikoa denean

Ikuskapen-jarduketak 142, zehapen-espedienteak 0 eta errekerimenduak 40

Guztira: Ikuskapen-jarduketak 804, zehapen-espedienteak 8 eta errekerimenduak 214

LAN-AGINTARITZEK ABEEEEi BURUZ ESKATUTAKO TXOSTENAK.

Lan-agintaritzak informazioa eskatu du honako hauei buruz: batetik, ABEEE bidezkoa den ala ez, eta, bestetik, proposatutako etete-neurriaren justifikazio eta bidezotasun gisa alegatutako arrazoiak eta inguruabarrak.

Bi motatakoak izan dira: ezinbesteko arrazoen ondoriozkoak eta arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak zituztenak.

NT0051: ABEEE TXOSTENAK EZINBESTEKO ARRAZOIENGATIK (KORONABIRUSA) 1.163 - Ikuskapen-jarduketak

NT0052: ABEEE TXOSTENAK ARRAZOI TEKNIKOAK, ANTOLAKUNTZAKOAK EDO EKOIZPENEKOAK DAUDENEAN (KORONABIRUSA) 2.985 - Ikuskapen-jarduketak

NT0053: BERRESKURATZEKO DEN ORDAINDURIKO COVID-19 BAIMENAREKIN LOTUTAKO IKUSKAPEN-JARDUKETAK 140 - Ikuskapen-jarduketak

SEKTOREKA BANATUTA

Sektorea	EJSN	Jarduketak	Arau-hausteak	Errekerimenduak	Kontratu berrikusiak
LEHEN SEKTOREA	01-09	80	3	7	169
INDUSTRIA	10-39	2.078	27	302	1.175
ERAIKUNTZA	41-43	542	23	70	2.636
MERKATARITZA	45-47	1.353	58	245	871
GARRAIOA	49-53	500	11	202	276
ZERBITZUAK	55-96	4.112	203	1.564	4.534

2.1. GIZARTE SEGURANTZA 2020

Sarreran aipatu bezala, jarraian datuetan azalduko da zer jarduketa burutu duten Lan eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileek eta Lan Ikuskatzailetzako eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileordeek, zeinak **EAEko Lan Ikuskaritzakoak** baitira, Estatuko eskumenekin lotuta egindako jarduketan inguruan. Lan Ikuskaritzako Sistemari, batera aritzeko lankidetzaren barruan egindako jarduketak dira, bat datozenak xedatutakoarekin indarreko legedian eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren Euskal Kontseiluak sinatutako hitzarmenetan.


Dagokien zeregina gauzatu, eragile horiek, guztira, 1.413 bisita egin dituzte.

Emaizak	2020
JARDUKETAK	2.055
ARAU-HAUSTEAK	67
ARAU-HAUSTEEN ZENBATEKOA	256.780,44€
ERAGINDAKO LANGILEAK	187
LIKIDAZIO-ESPEDIENTEEN ZENBATEKOA	568.516,66€
ERREKERIMENDUAK	110
ALTAK/BAJAK (GZ eta eragindakoak)	72
BERRIKUSITAKO KONTRATUAK	292

Kontsultak eta aholkularitzak honako gai hauei buruzkoak izan dira batez ere:

- Kotizazio-aldeak
- Lanaldi partzialeko kontratuetako laneko denbora areagotzea.
- Lanaldi partzialeko kontratuetako laneko denbora areagotzea.
- Betebehar formalak eta dokumentalak.
- Murriztapenak eta hobariak dituzten kontratuak.

Honela banatzen da arau-hausteen % 82



Gizarte Segurantzaren arloan 2020an egindako beste jarduketeta batzuk:

	JARDUKETAK	ARAU-HAUSTEAK
Betebehar formalak eta dokumentalak (Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina, LAZLTB, 21. art.)	347	0
11Langileen bajeen komunikazioa (LAZLTB, 21.3. art.)	320	1
Enpresen inskripzioa (LAZLTB, 22.1. art.)	130	0
Besteren konturako langileen afiliazioa eta alta (LAZLTB, 22.2. eta 22.16. art.)	626	24
Norbere konturako langileen afiliazioa eta alta (LAZLTB, 22.7. art.)	86	3
Kudeaketaren arloko nahitaezko lankidetza (LAZLTB, 22.4. art.)	6	2
Datuen komunikazioa eta informazioa ematea (LAZLTB, 22.1. eta 23.1.g art.)	63	1
Kuoten zorpeko osoa. Likidazio-proposamenak (LAZLTB, 23.1.b art.)	26	0
Kotizazio-aldeak, 10S eta 11 S gakoak salbu (LAZLTB, 22.3. art.)	152	8
Aldeak, kuotak iruzurrez murrizteagatik (LAZLTB, 23.1 f art.)	1	1
Erantzukizun-deribazioak, likidazio-aktagatik	0	0
Erantzukizun-deribazioak, ondorengotza, talde, kontrata eta emakidei buruzko txostenagatik	1	0
Kudeaketan borondatez laguntzea (LAZLTB, 30., 31. eta 32. art.)	0	0
Istripuen mutuak (LAZLTB, 27., 28. eta 29. art.)	0	0
Aldi baterako ezintasunen prestazioak amatasunagatik. Enpresaburuen arau-hausteak (LAZLTB, 23.1.a, 23.1.c eta 23.1.e art.)	3	0
Ezintasun iraunkorraren prestazioak. Enpresaburuen arau-hausteak (LAZLTB, 23.1.a, 23.1.c eta 23.1.e art.)	8	1
Erretiroaren prestazioak. Enpresaburuen arau-hausteak (LAZLTB, 23.1.a, 23.1.c eta 23.1.e art.)	7	0
Aldi baterako ezintasunen prestazioa amatasunagatik. Langileen arau-hausteak (LAZLTB, 25. eta 26. art.)	5	0

Ezintasun iraunkorraren prestazioa. Langileen arau-hausteak (LAZLTB, 25. eta 26. art.)	2	1
Erretiroaren prestazioa. Langileen arau-hausteak (LAZLTB, 25. eta 26. art.)	1	0
Prestazioen ordainketa (LAZLTB, 22.8. art.)	0	0
Langabeziaren prestazioa. Enpresaburuaren arau-hausteak (LAZLTB, 23.1.a, 23.1.c eta 23.1.e art.)	13	3
Langabeziaren prestazioa. Langileen arau-hausteak (LAZLTB, 26. art.)	5	3
Sorospena, Nekazaritzako Erregimen edo Araubide Berezia. Enpresaburuaren arau-hausteak (LAZLTB, 23.1.a, 23.1.c eta 23.1.e art.)	0	0
Sorospena, Nekazaritzako Erregimen edo Araubide Berezia. Langileen arau-hausteak (LAZLTB, 26. art.)	0	0
Autonomoen kontingentzia profesionalak, ABE eta jarduera-uzteak babestea (LAZLTB, 22.5. art.)	0	0
Langile-kuota atxikitzea (LAZLTB, 23.1.k art.)	0	0
Itun irregularrak langileekin (LAZLTB, 23.1d art.)	0	0
Kotizazio-oinarriak bidegabe areagotzea, langabezia salbu (LAZLTB, 23.1e art.)	0	0
Kontratu hobaridunak eta murrizketak (LAZLTB, 22.9. art.)	10	0
Kontratu hobaridunak eta murrizketak (LAZLTB, 22.9. art.)	0	0
Laneko istripuetako mutuen kudeaketaren kontrola	0	0
Erantzukizun-deribazioak administratzaileen txostenagatik	0	0
Betebehar dokumentalak. Enpresa-ziurtagiria ez ematea (LAZLTB, 22.6. art.)	9	3
Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko kuotak ez sartzeko sasoiz eta forman, kotizazio-dokumentuak aurkeztuta (LAZLTB, 22.3. art.)	0	0
Gizarte Segurantzako edozein erregimeneko kuota finkoak ez sartzeko sasoiz eta forman (LAZLTB, 22.3. art.)	0	0
Afiliazio/Alta bidegabeak deuseztatzea	5	0
Langile autonomoek jarduera-uzteagatik babesa (LAZLTB, 24.3., 25.4. eta 26.2. art.)	0	0
Kontingentziak zehazteko txostenak LI/LGen ondoriozko Gizarte Segurantzako prestazioetan	1	0
LI/LG kotizazioak murriztea, istripu-tasa murrizteagatik	0	0
Epez kanpoko altak (LAZLTB, 22.10. art.)	2	2
Enpresaburu nagusiak egiaztatzea ea alta eman zaien azpikontratetako langileei (LAZLTB, 22.11. art.)	12	3
Erakunde kudeatzaileari komunikatzea (52.2. art.) langileen arau-hauste arina (24. art.) edo astuna (25. art.)	1	1
Hitzarmen bereziak izenpetzeko betebeharrak LEren 51.9. artikuluan ezarritako kasuetan (LAZLTB, 23.1.i art.)	0	0
Alta- eta kotizazio-falta izapide-aldiko soldatengatik eta ordaindutako baina hartu gabeko oporregatik (LAZLTB, 22.12. art.)	1	0
Aldaketarik ez komunikatzea kontratu-etenaldiko edo lanaldi-murrizketako kasuetan (LAZLTB, 22.13. art.)	2	1
Altan dauden langileekin bateraezinak diren prestazioak (LAZLTB, 22.14. art.)	2	1
Kontratua etenda edo lanaldia murriztuta dauden langileak enplegatzea (LAZLTB, 23.1.j art.)	1	8
Hobariak etengabeko prestakuntzagatik (22.9. eta 23.1.h art.)	0	0
Enplegurako lanbide-prestakuntzako hobariak (LAZL, 22.9., 22.15. eta 23.1.h art.)	0	0
Laneko denbora areagotzea lanaldi partzialeko kontratuetan	101	0
Kotizazio-aldeak, LAAB	0	0
Kuotak ordaintzetik salbuestea ezinbesteko kasuetan. 16/2014 Errege Lege Dekretua, 4. xedapen gehigarria.	0	0
Erretiro partziala. Kotizazio-aldeak (LAZLTB, 22.3. art.)	0	0
COVID salbuespenen txostena	106	0

2.2. ENPLEGUA ETA ATZERRITARRAK 2020

Aurreko atalean bezala, Eusko Jaurlaritzaren eskumena ez bada ere, gure saileko langileek formalizatu dituzte laburbilduta jaso diren jarduketak.

Enpleguaren eta atzerritarren arloko araudia betetzeko, gure ikuskatzaileek 69zerbitzu-agindu amaitu zituzten, eta 48 ikuskaritza-bisita egin. Jarduera horiek, oro har, planifikatuta egin ziren. Horretarako, 2020an, kanpaina hauek egon ziren EAEko eremu eskusiboan:

- ENPLEGUA ORO HAR SUSTATZEKO LAGUNTZAK KONTROLATZEA
- MAHATSONDOAREN LABORANTZA
- ENPLEGU-ERREGULAZIOKO EGUNAK KONTROLATZEA ETA EGIAZTATZEA
- EGIAZTATZE EA BETETZEN DIREN PENAKONTRATAZIOAREKIN ETA ENPLEGUA ESKURATZEAREKIN LOTUTAKO BETEBEHARRAK
- EGIAZTATZEA EA BATERAGARRIAK DIREN DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA ETA INOREN KONTURA JASOTAKO SOLDATAK
- KONTROLATZEA NOLA SORTU ETA MANTENTZEN DIREN LANERATZEKO ENPRESAK

Halaber, Ikuskaritza-arloan Estatuko Administrazio Orokorrarekin batera aritzeko dauden lankidetzaren barruan, estatu-mailako kanpaina hauek garatu ziren:

- DESGAITASUNAK DITUZTENAK LANERATZEA
- EKONOMIA IRREGULARRA ETA ATZERRITARRAK. OSTALARITZA
- EKONOMIA IRREGULARREKO EGOERAN DAUDEN ENPRESAK ETA ATZERRITARRAK - GARRAIOA —
- NEKAZARITZA-JARDUERAK
- PRESTAKUNTZA-KONTRATUAK ETA BESTELAKO LAGUNTZAK
- ENPLEGU-AGENTZIA PRIBATUAK

Emaizak	2020
JARDUKETAK	1.068
ARAU-HAUSTEAK	11
ARAU-HAUSTEEN ZENBATEKOA	87.899,46
LANGILEEN ARAU-HAUSTEAK	11
ERREKERIMENDUAK	55
LANGILEAK EGIAZTATZEA	638

Hautemandako arau-hauste gehienen arrazoa izan da ez betetzea desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko betebeharra (ez betetzea desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak erreserbatzeko legezko betebeharra, edota ez aplikatzea haren ordezkio salbuespenezko neurriak).

Enplegu-arloko gainerako jarduketei dagokienez, aipatu behar da eduki hauekin lotuta egon zela haien helburua:

- Enpresaburuaren betebeharrak formalak eta dokumentalak.
- Lan-baimenak.
- Estatuko laguntzak eta dirulaguntzak, enplegua sustatzeko eta LH okupazionalerako eta etengabekorako.
- Autonomia-erkidegoetako laguntzak eta dirulaguntzak, enplegua sustatzeko, LH okupazionalerako eta etengabekorako.

2021

Aurreikusten da ezen, 2021ean, lehentasuna emango ziola honako kanpaina hauek garatzeari:

Laneko Arriskuen eta Prebentzioaren arloan:

- Istripu hilgarriak, larriak eta oso larriak ikertzea.
- Istripu arin ezaugarri berezidunak ikertzea.
- Obra publikoak eta eraikuntza.
- Laneko arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegia aintzat hartuta. Bereziki, haurdunaldi- eta eradoskitze-protokoloen kanpainak egingo dira, eta nahasmendu muskuloesketikoei buruzkoak.
- Jazarpen-protokoloak.
- Siderometalurgia-sektoreko industria.
- Istripu-tasa handiko enpresak.
- Arrisku psikosozialak.

Lan-harremanen eta Enpleguaren arloan:

- Emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasuneko kanpainak.
Bereziki, gizonen eta emakumeen ordainsariak edo soldata-arrakala berdintzeko kanpainari ekingo zaio, 6/2019 Errege Lege Dekretua betez.
Ostalaritza-sektorean, pisuetako gela-zerbitzarien lan-baldintzak egiaztatzeko kanpaina integralari eutsiko zaio. Integrala, lan-arriskuak prebenitzeko baldintzak kontrolatzen baitira; bereziki, arrisku muskuloesketikoak, kontratazio-baldintzak, ordutegiak eta soldadak. Eta arreta ematen zaie azpikontratei eta legez kanpo egin daitezkeen lagapenei.
Era berean, kanpaina espezifiko bat egingo da bizitza pertsonala eta profesionala kontziliatzeko.
- 250 eta 150 langiletik gorako enpresetako berdintasun-planen gaineko kanpainak.
- Kontratazio-arloko iruzurra. Talka-planen jarraipena.
- Lanaldi partzialeko kontratuak.
- Laneko denbora. Ordainsariaren erregistroaren gaineko baldintza jasota, 6/2019 Errege Lege Dekretua betez.
- Desgaitasunak dituztenak laneratzea. Eta lanpostuen % 2 gordetzea desgaitasunen bat duten pertsonentzat, 50 langiletik gorako enpresetan.

- Enplegu-erregulazioko espedienteak kontrolatzea eta egiaztatzea.
- Laneko jazarpen-egoerak, generoaz bestelako arrazoien ondoriozkoak, kontrolatzea eta prebenitzea.